

...eta
Kittoa!

2017-V-26

1.017 zkia.

Baserritar jantzita gozatzeko asteburua



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua



gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

943 530 356
688 674 242
669 934 964

electricidad iparelek s.l.

INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA

iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com



TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

610 532 922

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitin Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ARKITEKTOAK

olatz etxeberria martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberria

arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12

www.arquitectura-ei.com



ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E.

INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS



ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

info@ajtoficina.com tlf. 943 80 18 30

AJT zihurtasuna S.L.P.
Barrena, 6 - behea ezk.

KRISTALAK



TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com

ERAKUSKETA
Arikixaneko Zubian

eta faxa: 943 203 903

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-

605 713 168

943 744 019

GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082

Mobila 688 609 171

www.multiservicioseibar.com Barrena, 21-1.F



ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

TREJO GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta
mantenimendua

PINTURAK

baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21

Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900

Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOKO

dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belautegi.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO IRUDIA:
Fernando Retolaza

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eskutitzak

- KIROL HIRI BERRIA EIBARREN EGOTEA DA AUKERA BAKARRA -

Eibar KEko kirol zuzendaritzak sarritan adierazi du kirol proiektua era egokian aurrera eramateko lehen mailako talde bati dagokion kirol hiria behar dela. Lehen taldeak alokatutako kirol gune batean entrenatzen du. Zelai gabeziak harrobi lana era egokian aurrera eramatea zailtzen du. Eta anexoko 500 metroak monjei alokatuta daude.

Eibarko KEren egitura 250 lagun dihardute, jokalarik eta entrenatzaileen artean. Berarekin darman **arriskutik** aparte, hiritik kanporako desplazamendu bakoitzak **denbora galtzea** dakar. Ez ahaztu gure harrobiko jokalariek, kirola egitetik aparte, ikasleak direla eta ez dela egokia egunero bidaia-tzen hainbeste denbora egitea. Alde ekonomikoa ere kontuan izan behar da, eta bidaia bakoitza kirol taldearentzako eta jokalarik eta familientzako beharrezkoa ez den **gastua** da. 250 lagun urtero egiten diren entrenamendu eta partiduingatik biderkatuz gero, bidaia kopuru oso handia ateratzen da.

Badago eibartarrik astean hiru-lau aldiz autoa hartu bere semea edo biloba entrenatzera era-

mateko eta, horretarako, joateko 15-20 kilometro egin eta ekartzeko beste horrenbeste egin nahi duenik?

Aukera bakarra ikusten dugu: kirol hiri berria Eibarren egitea. Eibar KEk hiri honetatik bere historiako 75 urteetan jaso duen babes eta laguntza guztia bueltatu behar duela uste dugu. Klubak bere jarraitzaileei, bere hiriarik, laga diezaiokkeen ondarerik onena aisialdirako, osasunerako eta kirola egiteko espazio berri bat da.

Gure programan kirol hiri berria Eibarren egotea ikuskatzen dugu: lekua dagoelako, teknikariekin eremu desberdinak aztertu ditugulako eta bideragarriak direlako eta aztertutako lekuan oso onak direlako: Kaskarrengua, Unbeko beheko partea, Boldingua, monjen ingurua edo leku horien arteko konbinazio bat. Lanarekin, aukera guztiak aztertuta, kirol hiri oso ona egin daiteke. **Hori da aukera bakarra: kirol hiri berria Eibarren egitea. Aupa Eibar! Gora Eibar!**

EDUARDO TREVIÑO (EIBAR PRIMERAN)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LO-GOSE.- Logura. "Gure gizonak lo-gosia eukitzen dau".

LO-JARUA EGIN.- Lo aldi laburra egin, baina ez ohean. "Bazkalostian lo-jaru txiki bat egin eta ederto geratu naiz".

LO-JARUAN.- Erdi lo egon. "Lo-jaruan zan neskamia albo baten egon zan ixillik eta ezkutuan".

astean esanak

Haurdunaldi subrogatuaren inguruan

"Arbuioa sortzen duena zera da: andrazko batek nola utz dezakeen bere sabeleko fruitua era hotz eta kalkulatu" (NOELIA IGAREDA, FILOSOFIAK KATEDRADUNA)

"Esplotazio mota bat bihurtzen ari da. Zaila da hori esatea fede onez, ume bila ikaragarritzko gogoz ari direnei" (ITZIAR ALKORTA, ZUZENBIDEKO IRAKASLEA)

"Esplotazioa? Gaia erradikalizatzea da hori. Legezatu gabeko tokietan gertatzen da esplotazioa" (JOSU FRANCO, UGALKETA LAGUNDUKO MEDIKUA)

"Emozioen mistikatik hitz egiten dute: haurdunak agertzen dituzte besteei laguntzea balitz bezala haien bizitzaren zentzua" (IANIRE DE LA CALVA, FEMINISTALDEKO KIDEA)

"Ez dut uste guraso izatea eskubidea denik, baina boluntario bat prest badago laguntzeko, zergatik ez?" (NOELIA ÚSES, SUBROGAZIO BIDEZKO AMAGAIJA)

"Garrantzitsua da hiztegia: 'alokairuzko sabela' esatea gutxiesgarria da, pertsonak ezin direlako alokatu" (MIGUEL JODAR, HAURDUNTZE SUBROGATUA ELKARTEA)

"Ez da lan bat, emazte izatea ere ez den bezala. Bizirik irauteko aukera bat da; batzuentzat, bakarra" (LAURA NUÑO, ZUZENBIDE IRAKASLEA)

"Umetokia uzten duten gehienek diruagatik uzten dute, baina diru beharragatik egiten ditugu lan guztiak" (IMANOL ÁLVAREZ, EHGAMENKO KIDEA)

"Oro har, subrogazioaren aurka agertu da mugimendu feminista, baina aditu batzuk hasiak dira nabardurak egiten: aldarrikatzen dute gaitasuna dutela euren gorputzaz erabakitze" (MAITE ASENSIO, KAZETARIA)

"Urtero subrogazio bidez jaiotako 250 haur baino gehiago sartzen dira Euskal Herrira. Debequak eragotzi ezin duen egia baten adibide dira, eta gurasoek egoera arautzeko eskatzen dute" (SAMARA VELTE, KAZETARIA)



FELIX MORQUECHO

Eibar eta Sarajevo

Eibarko Udaletxeak, eraikinak berak, gerra pairatu zuen orain dela 80 urte. Segun eta zertarako denbora gehiegi izan daiteke, aitona-amonen garaietako kontuak. Gainera, min egin duten gai horiek ixilean eramaten ikasi zuten beraiek, eta gu zauririk gabe hazi gara, zuri. Orain dela gutxi hasi ginen galdetzen eta jakin genuen zer gertatu zen hemen bertan, belaualdi pare batera. Orain Udaletxeak beste gerra bat gordetzen du bere baitan. Barruko patioan, Gervasio Sánchez argazkilarik egindako irudiek osatzen dute 'Sarajevo, gerra eta bakea' erakusketa. Gerra horrekin kilometro gehiago ditugu, baina urte gutxiago. Borroken tartean bere burua ikusi zutenak bizirik daude kasu batzuetan eta kazetariak beraien historiak irudiz azaldu ditu, nahiz eta beste batzuetan hilerrietan bukatzen diren, gerrek pertsonak hil egiten dituztelako, ezin ahaztu. Sarajevon jendea europar erara janzen zen, eraikinak modernoak ziren batzutan, klasikoak bestetan, edozein hiriburutan bezala. Baina eszenatoki horretan gerrak bere krudeltasun osoz bizi izan zuten. Ikasi nahi badugu begiak ireki behar ditugu, bai orain dela 80 urte gertatukoari, bai orain dela 20, bai orain bertan gertatzen ari denari. Min egin arren.

Sanjuanetarako eskaeriak aurkezteko epia zabalik dago

San Juan jaixetan txosnak ipiñi nahi dabeneandako eskaeriak egiteko epia zabalik dago. Pegoran aurkeztu biharko dira, ekaiñaren 2ko 14:30xak baiño lehen. Argibide gehixagorako udalaren webgunera ("tramiteak" azpiatalera) jo leike. Bestalde, udalak kuadrillendako emoten dittuan diru-laguntza eskaeriak ekaiñaren 9ra arte egin leikez. Laguntzak eskatzeko ez dago ez adin mugarik, ezta kuadrilla bakoitzean kide kopuru mugarik be, baiña kuadrillen izenak eta kamisetetako mezuak euskeraz izan biharko dira. Eskaerak aurkeztu baiño lehen dendetan aurrekontua eskatu biharko da, datu honekin batera: enpresaren izena, telefonua, helbidia, posta elektronikua eta IFK, zer erosiko dan eta kostua (BEZa barne). Aurrekontua, taldiaren izena eta ordezkariaren izena eta kontaktua Portalean, Kultura saillian entregatu bihar dira edo, bestela, kultura@eibar.eus helbidera bialdu.



botoemaillek hartu eben parte domekan gure herrixan PSOEko idazkari nagusixa aukeratzeko egindako botaziñuetan. 244k Patxi Lopezi emon zetsen botoa, 68 Pedro Sanchez irabazlia izango zanarentzat izan ziran eta 6rekin geratu zan Susana Diaz . Partehartzia Eibarren %85ekua izan zan; haundixa, beraz.

Amestik irabazi eban II. Gin Tonic lehiaketia

Aurreko barixakuan jokatu zan Euskeraz Primeran! kanpaiñaren inguruko II. Gin Tonic lehiaketako finala Untzagan, Oihan Vegak girotu eban ekitaldixan, eta Amesti tabernako Emilio Pitak eruan eban 300 euroko sari nagusixa, Oskar Pardok eta Ivan Feijók osatutako epaimahaixak holan erabagitta. Gin Tonic irabazliak 'Txumari' izena daka, Amañako bizilagun baten omenez. Irabazleak preparautako konbinauak ginebra oso-oso lehorra daroia eta, tabernarixaren berbetan, oin dala pare bat hillabete ekin zetsen horrendako tonica aproposena topatzeko proberi. Horrez gain, laranja-lorea eta pomelo deshidrataua be badakaz eta kopia izotz-bola baten barruan sartuta aurkeztu eban. Izotz-bola horrek 11 ordu bihar dittu izozteko eta, ondoren, soplete batekin hustu egin bihar da. Bigarren postua, Txoko tabernako Andoni Mayok preparautakuak eskuratu eban eta hirugarrena, barriz, iazko irabazliak, Ametsa tabernako Guadalupe Ibañezek jaso eban. Epaimahaikiak hiru finalisten mailla altua azpimarratu eben eta gatxa egin jakuen bat aukeratzia. Bestalde, botua emon eben bezeruen artian asteburu bateko egonaldixa zozketatu eben eta sarixa Miren Etxeberriari egokitu jakon. Ekaitz Olaizola ...eta kitto! Euskara Elkarteko presidentiak emon zetsan.



Goixan finalian parte hartu eben hirurak epai-mahaikuekin. Beheko argazkixan, asteburuko egonaldixaren irabazlia ...eta kitto!-ko presidentiarekin.





Muñoaren alde topa egiñez bere urtebetetzian

Ibon Muñoa preso eibartarrak 59 urte bete zittuan maiatzaren 18xan eta, hori dala eta, erretratuan ikusten ditzuzuenak Untzagan alkartu ziran, "berarekin topa egitteko". Azaldutakua araberak, "laster 17 urte beteko ditzu kartzelan. Untzagan alkartu giñenok bizi daben egoeria salatu nahi dogu eta, horrekin batera dispersiñua amaitzeko eskatu, fede txarrarekin Cordobako kartzelan, Euskal Herritik 800 kilometrotara preso dake eta".

Emakumiak hartu eben parte batez be aurreko zapatuko zumbatoian..
Maialen Belaustegi



Edarto astindu zittuen gorputzak zumbaren erritmora

Aurreko ediziñuetan bezala, oinguan be arrakastatsua izan zan aurreko zapatuan AFESD alkartiaren alde Astelena frontoian egindako zumba maratokia. Nerea Blasco ZIN irakasle eibartarraren ekimenez antolatutako "zumbathoiak" oso erantzun ona jaso eban. Atzera be jende asko animau zan parte hartzera, zapatu goiza gorputza astintzen pasatzera eta, bide batez, diagnostikorik bariko gaixotasunen bat daken umien famelikakuen Eibarko alkartiari laguntzera.

autuan

KANTABRIAKO ETXEKUEN TABERNIA ALOKAGAI

Kantabriako Etxekuak Jardinieta kalia daken tabernia alokairuan eskintzen dabe. Eskaeria egin ahal izateko Kantabriako alkarteko bazkia izatia eskatzen dabe. Bestelako baldintzak jasotzen daben dokumentaziñua ekaiñaren 6ra arte hartu leike. Informaziño gehixagorako 661 974 356 telefonora deittu (Valentin Cabanzon).



BICIBIZI JARDUNALDIXA

Bihar Bicibizi izenekua egingo dabe gurian eta horren harira, bestiak beste, bizikleta herri barruan zelan erabili bihar dan azaltzeko saia eskinduko dabe eta, horrekin batera, hainbat elkarteri laguntzeko spinning-a be egingo da, 17:00etatik 20:00etara Txaltxa Zelaixan. Informaziño gehixago www.bicibizi.com helbidian.

matrikula zabalik 2017 - 2018
2 urtetik aurrerako umeendako klaseak irakasle ingelesekin

ABBIEWHITE

English School
Bista Eder 7 behe
abbiewhiteenglish@gmail.com
informa zaitetz

BUS STOP

605693147

Funeraria-Ehortzetxe Mugica

EIBAR
Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR
Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO Funeuskadi



IDURRE IRIONDO



Helduendako ikastarua antolatu dabe bizikletan ibiltzen ikasteko

Foru Aldundiko Mugikortasun Departamentuak antolatuta, ekañian bizikletan ibiltzen ikasi nahi daben helduendako ikastarua egingo da Eibarren, kiroldegixan, udalaren Ingurumen sailarekin lankidetzan. Astelehenian ikastarua aurkezteko Ion Iraola eta Patxi Lejardi ziñegotzixekin batera egindako agerraldixan, Marisol Garmendia diputauak esan ebanez, *"iaz horrelako ikastarua egin zan Erreterian eta oso harrera ona euki eban. Heldu askok ez dabe euki pedaleri eragiten ikasteko aukerarik edo urte askuan ez dabe bizikletarik hartu. Horregaittik ikastaruan parte hartzera animau nahi dittut"*. Ingurumena zaintzeko garraia ez eze, bizikletan ibiltziak osasunari be mesede egitten desala gogorazari eban.

Bizikletia erabiltzen ikasteko klasiak ekañaren 7tik 9ra eta 15etik 17ra izango dira (ordutegixa zihetu barik dago), Ipurua kiroldegixan eta Gurpilaren Artean alkartekuak emongo dabe. Bizikletia zelan erabilli ikastiaz gain, parte hartzen dabenak bizikletia zaintzeko oiñarrizko aholkuak eta bide-segurtasunaren inguruan jakin biharrekuak be ikasiko dittue. Doako ikastaruan parte hartu nahi dabenak kiroldegixan emon biharko dau izena, ekañaren 2xa baiño lehen.

Plazaola argazkilarixaren legaua jaso dau Udal Artxibuak

Benigno Plazaola argazkilarixaren semealabak hárek etaratako 60.000 negatibo emon detsez dohaintzan Udal Artxibuari, horretarako hitzarmena siñatuta. Holan, legaua jasotziarekin batera udalak hainbat konpromiso hartu dittu eta, beste ezer bai-



Eibarko Udal Artxiboa / Archivo Municipal de Eibar

ño lehen, Benigno Plazaola Argazki Funtsa Eibarko Udalaren Artxibuan txertatu dabe, ikertzaillendako zein herritar guztiendako eskuragarri egoteko. Horrekin batera, Artxibuak konserbazio-egoera onian gordeko dau funtsa, agirixak ondo babestuta egoteko eta, azaldu dabenez, ez dittu zati txixixaguetan multzokatuko, *"funtseko agiri guztiak batera dakelako berezko balixo kulturala"*. Bestalde, udalak eta Plazaola famelixak adostuta, publikoki erabiltzeko izen ofiziala "Benigno Plazaola Argazki Funtsa" izango da. Plazaola argazkilarixak 30 bat urtean egindako biharrian 1950-1985 urtien bittarteko Eibarko bizitza dago jasota.

Amaña eskolakuen jaixa bixarko

Amaña herri eskolako bihargiñak eta ikaslien famelixetakuak eskolako jaixa antolatu dabe hirugarrenez eta, horretarako, hainbat jarduera preparau dittue bixar goizerako. Programia 11:00etan hasiko da, 13:30xak arte egingo diran hainbat taillar (henna, makillajia, izena hizkuntza diferentietan, psikogela...) eta LH-ko ikasliendako jolasekin. 14:00xetan bakotxak etxetik eruandakuarekin bazkarixa egingo dabe eta 16:30xetatik 17:45ak bittartian musikia eta animaziñua izango dira jaun eta jabe, Mikel Egiluzen "Dantza Festa"-rekin.



Abian da "ON EKIN enpresa ideia eta proiektuen V. lehiaketa"

Debabarreneko Ekingune elkarteak ekintzailatza sustatzeko lehiaketaren bosgarren edizioa antolatatu du. Sormena bultzatu eta norbanako nahiz enpresen ekimenak babestea bilatzen du sariketarak. Iazko irabazlea Ana Mugerza eibartarra izan zen eta berak aurkeztutako proiektuaren gainean hitz egin digu.

- Iazko edizioko irabazlea izan zinen Eibarrooms proiektuarekin. Zer aurkeztu zenuen?

Eibarrooms ostatu alternatiboa da. Hotel antzeko bat da, baina 12 gelarekin eta harrera-lekurik eta jatetxerik gabe. Hori kenduta, hotel batek eskaintzen dituen zebitzu guztiak ditu. Dena internet bidez gestionatzen da, eta bezeroa, klabe batzuen bitartez, berak nahi duenean sartu eta irtengo da. Batipat *business* edo negozio munduko bezeroentzat pentsatuta dago. Orain obrak egiten ari gara eta uda ostean zabalduko dugu.

- Nola ezagutu zenuen ON EKIN lehiaketa?

Idea lantzen hasi nintzenean lehenengo Debegesarekin eta, ondoren, Somos-ekoekin jarri nintzen harremanetan. Euren bitartez jakin nuen ekintzailentzako lehiaketa horren berri, eta parte hartzerari animatu nintzen.



Iazko irabazlea Ana Mugerza izan zen (bigarrena eskumatik) "Eibarrooms" proiektuarekin. Bigarren saria "Aldu" proiektuak eraman zuen, eta hirugarrena "YoTeLoVendo" k.

- Zertan lagundu dizu lehiaketak?

Lehiaketari esker nire proiektuak ondorio narbarmenak izan ditu, oso ezaguna egin da. Hasten dagoen jendearentzat oso inportantea da erakundeen zein beste ekintzaileen laguntza izatea, beldurra kentzeko, zalantzak argitzeko eta beste ideia batzuk barnertzeko. Zure moduan daudenekin zein esperientzia horretatik pasatu direnekin ideiak partekatzea oso ondo dago. Beraz, zalantza bariarik, enpresa bat montatzeko asmoa daukaten guztientzat oso aukera ona da.

ON EKIN ENPRESA IDEIA ETA PROIEKTUEN V. LEHIAKETA

PARTE HARTZEKO: Dokumentuak 2017ko uztailaren 9rako, igandea, aurkeztu behar dira. Proposamenak e-postaz bakarrik aurkeztuko dira hurrengo helbidean:
ekingune@ekingune.com.
Proposamenak bidaltzean, idatzi gaiari: "On Ekin Hautagaitza".

AFARIA: Nahi duen guztiak parte har dezake uztailaren 20an, Eibarko Bizikleta Plazako Casino tabernan egingo den afarian eta bertan hiru irabazleak aukeratuko ditugu.

1.500€*

BAINO GEHIAGO DIRU-SARITAN

*Zenbatekoa handitzen joango da afarira doazenen kopuruaren arabera.
Zenbat eta gehiago izan, orduan eta sari aberatsagoak!



ekingune
Dokumentuak aurkeztu eta aurkeztuak



MARIELLA SAITZ MARTINEZ
EIBAR
reinventando / los seguros

Hasi da Guinness errekorra gainditzeko ekitaldian parte hartzeko izen-ematea

Datorren ekainean aurkeztuko da "Eibarren AKEBAI" plataforma eta egitasmoa. Horri ekiteko, eta aurkezpen moduan, ekitaldi handi bat egin nahi da ekainaren 22an, iluntzean, Untzagan: Guinness errekor bat gainditzeko ahalginduko gara. "Irudi baten eraldaketa" kategorian hartuko dugu parte, "Eibarren AKEBAI" plataformaren logotipoa guztion artean irudikatuta. Helburua, 2015ean Dubain egin zuten marka hobetzea da eta, horretarako, Dubaiko ekitaldi horretan elkartu ziren 2.350 lagunak baino gehiago, 2.500 bat elkartzea lortu behar dugu. Horren guztiaren berri emateko aste honetan hainbat bilera egin dira eta gerturatu den jendeak oso ondo hartu du ekimena eta bileretara joandakoak ekitaldiarekin bat egiteko prest agertu dira. Orain dela aste-bete 40 laguneko lantaldea zena boskoiztu egin da auzo bakoitzean sortu diren taldeei esker.

- NOIZ EGINGO DA?

Ekainaren 22an, iluntzean, Untzaga plazan. Egitaraua eta ordutegiak ez daude erabat itxita, baina gutxi gora-behera honi jarraituko zaio:

18:30: Auzoetan animazioa. Auzotarrak euren auzoetan batuko dira, musikaz lagunduta (Amaña-Legarre, Urki-Ipurua, Urkizu-Azitain).

19:30: Guztiak Untzagan elkartuko gara.

20:00: Guinness errekorra gainditzeko prestakuntza hasiko da.

20:30: Guinness errekorra.

Dena dela, datozen egunotan joango dira ematen xehetasun gehiago. Ekitaldi guztian zehar animazioa izango da kaleetan, eta Untzagan pantaila erraldoi bat ere ipiniko da, ekitaldia Txaltxa Zelaiko harmailetatik jarraitu ahal izateko.

- NOLA HARTU PARTE?

Guinnessen parte hartzeko, nahitaez eman beharko da izena aurretik.

2.500 lagun batu behar dira eta, dena behar den moduan antolatu ahal izateko, ekitaldia baino lehenago zenbat garen jakin behar dute antolatzailleek.

16 urtetik gora badituzu, erabili formularioa apuntatzeko.

12-16 urte bitarte badituzu (DBH) ere, erabili formularioa (eta adierazi 12-16 urte dituzula). Bestela, ikastetxean edo Gaztelekuan ere apuntatu zaitezke.

6-12 urte bitarte badituzu, izen-ematea ikastetxean egin beharko da. Ikastetxe bakoitzak zabalduko du informazioa datozen egunotan.

6 urtetik beherako umeek ezin izango dute logotipoa irudikatzeke ekitaldian parte hartu, baina bai hori girotzeko antolatzen diren beste guztietan.



Ekimenaren berri izan eta berehala hasi da jendea animatzen eta ekainaren 22rako prestatzen.

Eibarren AKEBAI Eibarko eragile guztien topagune izan nahi duen herri ekimen bat da, 10 urteko plangintzarekin, eta helburu nagusi eta argi bat izango du: Eibarko haur eta gazteen artean euskara-erabilera handitzeko lanean jardutea. Egitasmo ireki eta

parte-hartzailea da, eta eibartar guztiak daude deituta bertan parte hartzera, bere izenean edo euren elkarte-klub-taldearen izenean. Ekainaren 22ko ekitaldia 10 urteko egitasmo zabal bati hasiera emango dion "txupinazo" modukoa izango da. Are gehiago, ekimena antolatzen diharduteknek dioten moduan, "aurten San Juanak 22an hasiko dira. Eta modu handian hasiko dira, gainera, Guinness errekor bat gaindituz! Zatoz zu ere! Eibartarrok erakutsi behar dugu herri bizi eta parte-hartzailea garel!"

Hori bai, errekorra gainditzeko 2.500 lagun elkartu beharko gara eta, ekitaldia antolatzeko lanak errezteko aurretik izena ematea derrigorrezkoa da. Horretarako www.akebai.eus webgunea ipini da martxan, nahi duenak hor dagoen formularioa bete eta parte hartzeko aukera izateko (6-12 urteko umeak ikastetxean apuntatu dira). Herriko hainbat tabernatan ere egongo da izena emateko aukera. Ekitaldiari buruzko xehetasunak ere helbide horretan ematen joango dira, lotzen joan ahala. Animatu eta eman izena, denon artean Guinnessa lortuko dugu eta!



EUGENIO ZUBIA BASTIDA
(2017-IV-21)

**"ZURE irribarre eta samurtasuna
betirako izango dira GURE ARTEAN"**

ETXEKOAK



Roberto Perez Jauregi 21 urte zituen Burgoseko Prozesua salatze-ko manifestazio batean poliziak erail zuenean. Karmen kalean, hilketa gertatu zen tokian, Roberto gogoratzen duen plaka bat dago, baina Jorge bere anaiak 47 urtez borrokatu behar izan du justizia bila. Oraindik ez du aurkitu. Beste biktima batzuekin Eibarko Memoria Taldea sortu dute Gerra Zibilean eta frankismoan jasandako indarkeriaren testigantza jasotzeko. Justizia lortzeko "inoiz ez delako berandu".

JORGE PEREZ JAUREGI

(EIBARKO MEMORIA TALDEA):

"Aintzat hartzea ondo dago, baina justizia egitea da garrantzitsuena"

– *Zergatik ikusi duzue Eibarko Memoria Taldea osatzeko beharra?*

Pentsatzen dugu biktima batzuek memoria eta ordaina izan dutela, baina justiziarik ez. Euskadin zein estatuan arekan dauden asko dago oraindik eta Gobernu honek ez du pezatarik jartzen memoria historikoaren inguruan lan egiteko, beraz, hainbat puntu lantzen ari gara Argentina eta Eibarko epaitegien bitartez kereila bat egiteko.

– *Eibarko Udalarekin elkarlanean zabilzate, ezta?*

Bai, gaia plenora eraman zuten eta aho batez gure proposamena onartu zuten. Frankismo garaian hil zituztenen, Gerra Zibilean hil zirenen, torturatuak izan zituztenen... lekukotasuna jaso eta zerrenda osatzen ari gara epaitegietara bidaltzeko. Eibar ez da prozesu hau bizitzen ari den herri bakarra, Arrasate, Iruñea, Donostia eta beste hainbat tokitan ere berdin dabilzako. Inoiz ez da berandu. Biktima edo biktimen familiarik asko hiltzen ari dira denboraren poderioz, beraz, ezin dugu denbora galdu.

– *Zenbat kasu jaso dituzue orain arte zerrenda horretan?*

Maiatzaren 31era arte dago lekukotasuna eman eta zerrendan gehitzeko epea. Horretarako, Udalak pertsona bat jarri du lanean eta telefono bat ipini du (943708401).

– *Bakarka borrokatzea baino, bat eginda hobeto da?*

Bai, noski. Taldean zazpi pertsona gaude, bakoitza bere kontu eta ideiekin, baina argi daukagu elkarrekin aurrera egin behar dugula. Bakea nahi badugu, toki guztietatik etorri behar da. Era askotako biolentzia egon

da, eta guk sufritu duguna da zaharrena. Trantsizio sasoiaren alderdi politiko bakoitza bere puska ateratzen saiatu zen, eta Gerra Zibilean eta frankismo sasoiaren borrokatu, hil edota torturaturakoez ahaztu ziren. Amnistia Legea onartu zuten eta jende askorentzako ordaina urte asko geroago iritsi da. Aintzat hartzea ondo dago, baina justizia egitea da garrantzitsuena.


– *Argentinako Kereilak urteak daramatza zabalik. Zein puntutan aurkitzen da?*

Mauricio Macri eskuindarra da orain Argentinako presidentea eta traba asko jartzen dizkio kereila daraman Servini epaileari. Bestetik, Carlos Slepoy Espainian kereila bultzatu zuen epaile argentinarra orain dela gutxi hil da. Espainiako justizia ere arazoa da, inori ez deitzen saiatzen direlako dena esaltzeko asmoz. Irabazleek historia idazten dute eta ezin dugu horrela izaten utzi.

– *Eraiketa horiek egin zituztenak kalean daude. Zer sentiarazten dizu horrek?*

Nire anaia hil zutenetik 40 urte pasa ziren Memoria Historikoaren barruan aintzat hartzeko eta, pixkat geroago, Eusko Jaurlaritzak ere onartu zuen. Baina ez da justiziarik egin eta hori da eskatzen duguna. Nik dakidanez, nire anaia hil zuena komisario postura igo zuten Valladoliden, eta abokatuen bitartez zerbait egiten saiatu baginen ere, ezin genuela ezer egin esan ziguten. Erakunde publikoek ez zuten ezer egin eta demokrazia etorri zenean dena ahaztu zuten. Are gehiago, arazoak etorri ziren. Frankismoan denok bat eginda geuden, baina gero diferentziak etorri ziren eta beste modu batean ikusten gintuzten. Horrek amorrua ematen du. Esaten

Jorge Perez Jauregi bere anaia Robertori Karmelitetako parkean ipini zioten plakaren aurrean.
Ekhi Belar



dute indarkeria mota ezberdinak berdindu nahi ditugula eta ez da horrela, mina parekatzen dugu. Gobernu zentralak ez du ezer jakin nahi poliziak eragin duen biolentziaren eta erail dituen pertsonen inguruan. Nire anaiaren kasua ikertzeko orduan ez dut ezer aurkitu toki ofizialetan, ematen du ez dela inoiz gertatu. Hori estatu terrorismoa da.

– *Nondik atera duzue hainbeste urtetan aurrera egiteko indarra?*

Eusko Jaurlaritzaren programa baten bitartez eskoletara joaten gara hemen egon den biolentziari buruz berba egin (ETA-k hildakoak, frankismoan hildakoak...) eta indarkeria erauzi beharra dagoen mezua igortzera. Gertatu dena ezagutzea da gauza bera berriz ez gertatzeko modua. Ezin da berriro hutsetik hasi. Nire anaiari zor diodan zerbait da.

Beñat Laskurain (Ipurterre literatura lehiaketako irabazlea)

“Gure arbasoekin konpromisoa daukagu”

Beñat Laskurain Martinez eibartar gaztea aurtengo Ipurterre Gutun eta Ipuin Lehiaketako irabazlea izan da DBH 3-4 kategorian. 15 urte beteko ditu ekainean eta Ipurterre lehiaketa irabazten duen hirugarren aldia da. Lehen Hezkuntza San Andres ikastetxean egin zuen, eta orain J.A. Mogel Ikastetxean dihardu DBHko 3. mailan. Euskaltzalea eta musikazalea, saltsa guztietan sartzen den horietakoa da. Pianoa ikasten dihardu, Eibarko Koru Gazteko kidea da, igeriketa egiten du eta Debako erraldoi eta buruhandien taldekoa ere bada.



- Hiru aldiz irabazi duzu Ipurterre lehiaketa. Nondik datorkizu zaleztasuna?

Idaztea gustatzen zait eta erreztasuna daukat. Euskaraz irakurtzeko ohitura betidanik izan dut. Ama, gainera, euskara teknikaria denez, beti ibili da niri zuzentzen eta laguntzen.

- Zer kontatzen duzu Ipurterre lehiaketan aurkeztutako gutun horretan?

Deban bizi den pertsonaia fiktizio bat asmatu dut, Joseba. Gutunean esaten diot Eibarren Deban baino askoz ere gutxiago hitz egiten dela euskaraz, baina horrek ez duela esan nahi Deban ere euskara galtzeko arriskurik ez daukatetik. Guk egunero erabaki ahal dugu euskara erabili ala ez. Bi aukera edo bi bide dauzkagu, gure esku dago.

- “Norberak ez badu maite duena zaintzen, nolatan zainduko dute besteek?” diozu zure idazlanean...

Bai, eta euskararekiko errespetuaz eta konpromisoaz ere egiten dut berba. Gure arbasoekiko konpromiso bat daukagu, gu ez gara inor ere ez orain etortzeko eta esateko: guk erdaraz”.

- Pianoa jotzen duzu eta Koru Gazteko kidea ere bazara. Zelan joan da ikasturtea?

5 urte daramatzat pianoa jotzen eta koruan. Oso gustora nabil. Koru Gaztearekin aurten *Forjarien Kanta* musikala egin dugu. Azaroan bi saio segidan eskaini genituen Coliseoan. Orain, berriro, musikala entsaiatzen dihardugu, iraillean berriz ere taula gainean jarriko dugu-eta. Musikalarena oso esperientzia gogorra baina, aldi berean, ona izan da. Domeketan ere entsaiatzera joaten ginen, 4 ordu segidan. Baina merezi izan zuen. Abesteaz gain, koreografiak oso ondo ikasi behar dira, baita bakoitzak esan behar duena ere. Oso konpletua da. Askok disfrutatzen dugu, bestela ez ginen hor egongo!!!

- Zer gertatzen da Eibarren euskara eta gazteekin?

Debara joaten naizenean konturatu naiz zelako alde dagoen bi herrien artean, han gazte guztiek egiten dute euskaraz. Eibarren euskara eskolako gauza dela uste dute askok, eta gero kalean dena erdaraz egiten dute. Pena da baina kalean oso gutxi egiten da.

IGNACIO GASPAS ALVAREZ

V. urteurrena: 2012-V-25



Gurekin jarraitzen duzu: zure emazteak eta zure alabak ez zaitugu ahazten.



Euskararen Transmisioa VII. Mintegia

Euskarara hurbiltzeko gozamena ezinbestekoa da



Martitzenean goizeko 9:00etan eman zitzaion hasiera, Portaleko Areto Nagusian, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako "Euskararen Transmisioari buruzko Mintegia"ri. Aurtengoa zazpigarren edizioa izan da, eta euskarari buruzko hainbat ikerketa, hausnarketa, egitasmo eta esperientzia partekatu ziren. Umoreak demaseko pisua izan zuen. Porrotx-ek parte-hartzaile guztion irribarrea atera zuen, eta euskararen alde lan egiteko gozamena, bizipoza eta ilusioarekin jardutea zein garrantzitsua den gogorarazi zuen. Hitzaldien ostean, Jaime Altunak gidatutako mahainguruarekin amaitu zen aurtengo ekitaldia, 14:30ak aldera.



Aurkezpenean, Estibaliz Alkorta Jaurlaritzako euskara sustatzeko zuzendaria, Patxi Lejardi Eibarko Udaleko euskara saileko burua eta Maider Aranberri ...eta kitto! Euskara Elkarteko idazkaria.

Soraluzeko guraso ia euskaldunek euskararekin duten harremana aztertu du EBETE-ko

Arrate Gisasolak Hiznet graduondokorako egindako azterlanean. Haur eta gazteen artean euskararen erabilerak behera egin duela ikusita, eta, bestalde, kezka pertsonalak bultzatuta erabaki zuen eibartarrak gai horri eustea. Lanak bi alderdi nagusi ditu: batetik, Soraluzeko guraso ia euskaldunen pentsamendu eta bizipenetan sakontzea: hizkuntza ibilbidean, familia transmisioan, jarreretan, aurreritziatan..., eta, bestetik, Soraluzeko guraso ia euskaldunak euskararen normalizazioan aktore aktiboago izateko proposamena lantzea. Aurreiritzi asko daudela uste du Arratek, *"guraso hauek normalean erdalduntzat ditugu, eta aurreritziak eta ohitura horiek aldatzea zaila da. Eskolak ez zien euskara ikasten lagundu (A edo B ereduetan jardun zuten). D ereduan ikasiko dute euren seme-alabek, beraz ondo ikasiko dutela uste dute. Hau da, eskolaren gain lagatzen dute ardura, ez dute uste euren jarrera determinatzailea denik. Umeekin euskara bultzatzeko ze estrategia erabiltzen dituzten galdatzerakoan nahiko motz gelditzen dira. Batzuk euskararen historia ezagutza handia dute, beste batzuk txikiagoa, eta pentsatzen duguna baina modu positiboagoan hartzen gaituzte"*.



Jose Mari Agirretxe

"Porrotx" en testigantza ere izan genuen martitzeneko ekitaldian. Jose Mari Eibarko Kultur Etxean 'galdu' egin zen, eta, azkenean, "Porrotx"ek jardun zuen berbetan: *"Lasarte-Oriakoa, herri indutrializatu batekoa naiz ni. Nazionaletan ikasi nuen, eta euskara dezente galdu nuen. Mudantza bat izan nuen 16 urterekin: institutuan kontzientzia hartzen hasi nintzen. AEKn hasi nintzen eta Magisteritza euskaraz egin nuen. Lasartekoak eskualdeko ahate itsusiak ginen eta euskara bultzatzen hasi ginen, Euskararen Maratoia, esate baterako"*. Umorea bizitzari aurre egiteko modua dela uste du Porrotx-ek: Irrien Laguna orain dela 6 urte sortu zuten, eta Bizipoza elkartearen bitartez bertan parte hartzen duten taldeen balioak gizarteratzen ahalegintzen dira. Euskalgintzak Lasarte-Orian egin duen ibilbidea erreparatu ondoren, azken 20 urteetan erabilerak bikoiztu egin dela dio Porrotxek. *"Inportanteena naturala izatea eta egiten dugunarekin gozatzea da. Euskara, komunikazio-tresna izateaz gain, balioak transmititzeko tresna ere bada, eta mundu itsusi hori eraldatzeko erabili behar dugu"*. Herrigintzaren bitartez eragileek bat egitearen eta auzolanaren garrantzia azpimarratu zuen Porrotx-ek, umorea ahaztu gabe. Beraz, gozamina, bizipoza eta ilusia... horiek dira bere ustez euskararen osasunaren gakoak.



Esti Amorrortu, Deustuko Unibertsitateko irakasleak "Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak" ikerlanaren emaitzak azaldu zituen. Azken 5 urteetan landutako lana da, eta hiztun berrien ikuspegi orokorra ematea du helburu. Estiren ustetan, *"hiztun berriena talde estrategikoa da euskararen normalizaziorako. Hemendik aurrera hiztun berriak izango dira euskal hiztun gehienak"*.

Hiztun berriak lirake euskaraz funtzionatzeko gai direnak eta familatik kanpo ikasi dutenak. Metodo kualitatibo zein kuantitatiboak erabili dituzte ikerketa egiteko. 614 lagunek hartu dute parte ikerlanean, 18-55 urte bitartekoak eta euskara maila onekoak. Lau gune soziolinguistikoa aukeratu dira eta hiriguneez aparte interesa izan dute. Patroi desberdinak daude, batzuk euskaraz bizi dira eta beste batzuk ia ez dute erabiltzen. %51 erdaraz euskaraz baino gehiago mintzatzen da. Heren batek erabiltzen du euskara eta bi herenek oso gutxi. Erabilera zerk eragiten duen azaltzeko *"testuinguru soziolinguistikoa, sareak, gaztelaniaren presioa, gaitasuna eta ohitura bezalako faktoreak hartu behar dira kontuan"*.

Harreman-hizkuntza aldatzea oso zaila izaten dela azaldu zuen Amorrortuk: *"Zenbat eta hurbilagoa izan harremana, gero eta zailagoa da ohitura aldatzea"*. Bizitzan aldaketa bat ematen denean (Institutuan edo Unibertsitatean hasterakoan; lan munduan sartzerakoan, bizilekuz aldatzerakoan, guraso izaterakoan...), orduan gertatzen da mudantza edo hizkuntza aldaketa hori.



Mario Zapata soziologoak "Hizkuntza trataera migratzaileen harreran, administrazioz kanpoko eragileen eskutik" gaia jarri zuen mahai gainean. Hizkuntza gutxituen sustapena eta aniztasun etnokulturala uztartu ditu Zapatak bere azken ikerketan. Euskararen eremu geolinguistikora ekarrita, eragile sozialek migratzaileei transmititutako jarrerak eta ideiak ikertu ditu azterlan horrek eta lehen saria jaso du Soziolinguistika Klusterrak antolatutako IX. Hausnartu lehiaketan. Mario Zapataren esanetan, *"euskara biziberritzeko ereduak mahai gainean ditugu, baita aniztasun etnokulturala kudeatzeari dagozkionak ere. Baina estaturik gabeko nazioen kasuan, eredu horiek hutsune nabarmenak dituzte, eta beharrezkoa da ikuspuntu propio bat garatzea, esparru propio bat. Beharrezkoa ikusten dut aniztasunaren onarpena, eta bestetik, disimetriaren aitortza, hau da, gurea gutxiagotasun egoeran dagoen hizkuntza eta kultura izanik, legimititatea eta eskubidea dugula beste hizkuntza eta kultura horiek onartzeko eta babesteko"*. Migratzaileen harreraren esparruan, gabezia handiak daude hizkuntzen trataerari dagokionez: *"euskararen inguruan, esate baterako, sentsibilitatea antzeman dut eragile sozialen aldetik, baina, kasu gehienetan, ez dute sentsibilitate hori euren zereginean txertatzen. Euskalgintzako eragileek antolatutako egitasmoak kenduta, gainontzeko kasuetan, ez da euskara erabiltzen. Era berean, badago migratzaileen jatorrizko hizkuntzekiko aldeotasun bat ere, baina, kasu gehienetan, ez zaio bide ematen"*. Kontuan izan behar da eragile hauetako askok larrialdi egoerak kudeatzen dituztela, eta oinarri-oinarriko harrera laguntza eskaintzen dietela migratzaileei; hortaz, askok albo batera utzi behar izan dituzte hizkuntzaren inguruko praktikak, egoeraren larritasunak behartuta. Harrera integrala eskaintzea ezinezkoa dela uste du Zapatak, *"hortaz, interesgarria izan liteke eragile sozialen artean osagarritasunaren aukera jorratzea"*.



"Agurainen, egunerokoan, 75 ordu euskaraz" hitzaldia eskaini zuen **Asier Lafuente** ekimenaren antolakuntzako kideak. "Erabilerak ekarriko du motibazioa" printzipiotik abiatuta, Agurainen euskaldunak aktibatzen eta erdaldunei klabe batzuk emateko beharra ikusi zuten: "Euskara erabiltzeko gogoia sortu nahi genuen, jokabide aktiboa sortu nahi genuen eta jarrera positiboa erdaldunen artean". Ekimenaren bultzatzaileak herriko 20 lagun izan ziren, eta euren kabuz egitea erabaki zuten, Udalari ezer proposatu gabe. Konpromisoa hartuko zuen jendearen bila hasi ziren, "bere bizitzako arlo guztietan euskaraz aritzeko eskatzen genien: etxekoekin, koadrilako lagunekin, ezagunekin, lankideekin, dendetan, ezezagunekin...". Tailerrak antolatu ziren, sare sozialak erabili ziren, kartelak, triptikoak... Bisitak ere egin zituzten eta proiektua ikustarazteko ekimen asko antolatu ziren: "Pedagogia egiten jardun genuen 9 hilabetetan". Bi ohitura aldatu nahi zituzten: euskaldunok, berehalak, erdarara pasatzeko joera, eta erdaldunak, berehalak, erdarara pasatzeko eskaera. "Ohiturak aldatzea zen gure asmoa", eta esperientzia positiboa izan dela uste dute: 294 lagunek eman zuten izena. Egitasmoak hizkuntza mudantzak egitea ahalbidetu du eta Aguraingo erdaldunen eragina eragin dute. "Politika linguistiko ausartagoak izan behar direla" erakutsi die esperientziak.



Argiñe Korta eta Maru Eriz

"Argia ikastola: Erriberan etorkizuna ereiten" gaiari buruz aritu dira. Tuteratik 4 kilometrotara, Fontellasen dago Argia Ikastola. 33 urte ditu eta "gauzak ez dira errezak izan". Ikasleak 18 hilabeterekin hasi eta DBHra arte egoten dira. Gero, Iruñara joan behar dira Batxillergoa edo Lanbide Heziketa egitera. Gaztelera da hizkuntza ofizial bakarra eta kalean erdara da entzuten dena. Ikasle gehienek ama hizkuntza erdara da, eta euskara barnerratzeko daukaten modu bakarra txiki-txikitik euskara egiten hasten dira. Ikastolan euskara eta euskal kultura bultzatzen dira, eta ikastolatik kanpo ere motibazioan eragiteko hainbat ekintza egiten dituzte. "Denok batera lan egitea (irakasleak, ikastolako langileak...) oso inportantea da, eta familien konpromisoa ere ezinbestekoa da euskalduntze prozesu horretan: gurasoendako klaseak ematen ditugu Ikastolan bertan AEKrekin elkarlanean. Guraso guztiak ez dira etortzen bakarrik euskaragatik (proiektu pedagogikoa ere baloratzen dute), eta gero engantxatu behar izaten ditugu". Etorkizunera begira matrikulazioa hobetu nahi dute –gaur egun 200 ikasle dituzte–. Jakina da euskara eztabaidagai dela Nafarroan, eta Erriberan gehiago. Euren esanetan, "Orain arte agintariak oso mezu txarrak eman dituzte, baina badirudi Gobernu berriarekin joera hori aldatzen ari dela. Dena dela, ez dakigu etorkizunean zer gertatuko den".



Urtxintxa Eskolako **Maite Asensiok** "Euskara eta plazerra lotuz etorri berriei 'harrera ona' egin" gaiaren gainean jardun zuen. Haur eta gazte etorri berriekin egiten dute lan Urtxintxakoek, eta "euren lekuan ez garela jartzen" uste dute. Euskarak haurrak eta gazteak erakarri egin behar dituela dio Asensiok, "euskararen inguruko mezuak positiboak izan behar dira. Euskaraz ondo pasatzea da gure helburua, eta euskaraz jolasteko guneak sortzen ditugu. Adinaren arabera interesgune bat bilatzen dugu. Eurak ondo sentituz lortuko dugu guregana erakartzea. Beraz, fokoa ondo pasatze horretan, plazerrean jartzen dugu guk, eta ez da derrigorrezko zerbait". Aisialdian egoera informalak sortzen dira, konfidantzazkoak, eta "euren gertuko ereduak zelako hizkuntza gaitasun duten ikusteko balio dute". Euskaratik aparte, herriko egitasmo desberdinetan parte hartzen laguntzen zaie eta momentuan dituzten beharrei erantzuten ahalgintzen dira.

PUBLI RESA
objeto publicitario

Armagin, 3-5 beheak

- merchandising
- serigrafia
- lanerako erropa

publiresa@publiresa.com 943 701 497 / 615 799 419

www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L

Herri barruko Spa
Peeling, buztinak, bilgarriak...

Masajeak
Erlaxazioa eta ongizatea

Tratamenduak
Aurpegirako, Gorputzerako

Terapia Naturalak
Bach loreak

tel. 688 896 291
San Juan 11-bis - 1º

Kenay
belleza natural

Rosario Gómez Rodríguez

Eibarren Euskal Jaiaren 52. edizioa ospatzen dihardugu eta domekara arte baserritar jantzita ibiltzeko aukera egongo da. Gero eta parte-hartzaileago diren ekitaldietan Klub Deportiboak herriko lagun eta elkarte asko mobilizatu ditu eta horretan inplikaturako jende guztiari esker jai giroa nagusituko da guztiz asteburu honetan.



Eibarko trikilaria gazteak.

Gaur Eibarko Bizikleta Plazan **Kalian Jolasian** ekitaldiak 5-8 urte bitarteko umeei -eta euren guraso eta familiei- zuzendutako euskarazko jolasekin ondo baino hobeto pasatzeko aukera emango die. Udaleko Euskara eta Gazteria sailak antolatutako ekitaldi horrek 17:00etan hasi eta 19:00ak arte iraungo du. Jarraian, eta plaza beretik abiatuta, 15 lagunez osatutako **Burrunba elektrotxaranga** herriaren erdiko kaleak girotuko ditu.

Bihar, goizeko 10:00etan hasita eta arratsaldeko 14:00ak arte, **Artisau eta Baserritarren Azokak** hartuko du Toribio Etxebarria kalea. Azoka horretan denetarik ikusteko "eta erosteko" aukera izango dugu, 31 stand izango baitira artisauen produktuak erakusten. Horietako 17, gainera, Eibarkoak dira, urte guztia eskuz egindako lanetan dihardutenak. Izango da ere parte hartzeko tailerrik: Sedaencolor-en artilezko eskulanak erakutsiko ditu egiten, adin ezberdinetakentzat bi saiotan. Eibarko baserritarrek ere produktu freskoenak jarriko dituzte gure eskura: Gisasola, Loixola, Zelaikua, Mendigoitxi, Sumendixa Behekua, Mandiola Gaiñekua eta Sosola hor izango dira.

Eguerdi aldean, eta T. Etxebarriatik mugitu gabe, **herri-kirolekin eta bertsolariekin** gozatzeko aukera izango dugu. Jon Loiola, Jose Martin Bustinza "Tubi", Irati Astondoa eta Iruñe Izkoren erakustaldiekin batera, Mogel Isasi, Aldatze eta Itziokoen arteko lehiak interesa sortuko du. Guzti hori osatzeko Aimar Goenaga eta Ane Zuazubizkar bertsolarien jarduna ez da faltako. Eta talo postua ere zain goiz osoan.



Burrunba elektrotxaranga.

Herriko jendeak eskaintzen duen laguntza azpimarratzeko ezin dugu ahaztu elkarte gastronomikoetako ki-deek eskaintzen dutena. Urtetik urtera gero eta gehiagok eman dute izena eta aurtan **19 elkarte** kolaboratuko dute kantu-afaria eta herri-bazkaria prestatzen. Hor dira Asola Berrri, Bekuak, Denon Sahatsa, Dorrepe, Gazte Gogor, Gure Basterra, Ipurua, Jaiki, Kamarroak, Legarre Gain, Ondo Nahi, Ospelak, Otarre, Txirixo, Umbe, Urkuzu Gain, Usobide, Zatixa eta Zazipe soziedadeak, berakatza baino finagoak. Aupa zuek!



Balbi Vives Zabaleta

Mendaron hil zen
2017ko maiatzaren 22an

*Familiakook bihotzez
eskertzen dizuegu egunotan
jaso dugun babesa.*

Oroitzen zaitugunean, Balbi,
sukaldean egoten zara,
mahaia guztiontzat ipinita,
aulkian eseri eta
leihotik begira,
eta guk -badakigu-
zeure begien hondoan gaudela.

Zapatu arratsaldeko egitaraua Guridi tabernatik 19:00etan abiatuko den **trikipoteoaren** hasiko da, 19:00etan. Untzagako karpan egingo den **kantu-afariak** jende asko baturako du 21:30ean eta bertan izango diren kantek eta dantzek luze joko dute, jendearen "aguantearen" arabera. Mugi Panderoak gidatuko du prestatutako kantuen saioa eta, jarraian, Jainaga eta Narbaizaren maisutasuna nagusituko da ondorengo erromerian.

Domeka egun handia da Eibarko Euskal Jaian, dantzan geratu barik jarduteko aukera eskaintzen duena. Eguerdiko 12:00etan Urkizutik Untzagarainoko **kalejirak** piztuko du eguna, talde guztiak, gaiteroak, joaldunak eta trikitilariak protagonista. Behin Untzagara helduta Ezpalak **dantza tradizionalaren jaialdia** hasiko da 12:30ean, oraingoan Zaldikoak inguruko dantzak erakusteko. **Herri-bazkariak** hartuko du horren lekukoa 14:30ean. Behin sabela beteta, tartetxoa laga eta astintzeko erreparorik gabe, **erromeria** hasiko da 17:00etan, Errebal taldearekin. Eta jaiarekin amaitzeko, "Gaixoa ni" bota aurretik, hor izango ditugu **larrain-dantza saio biak**, azken asteotan hain arrakastatsu izan den ikastaroan jasotakoa erakusleho: 19:00etan Untzagan eta ordubete geroago Deporren parean.



Herri-kirolak.

Baserritarrak.



Euskal Jaiko kalejira.

Zaldi eta gizakiaren artean osatzen den izakiari zaldiko deitzen diote Nafarroan eta zalmaltzain Zuberoan. Himalayako lurraldetaraino hedatzen da zaldiko hori, antzinako Greziako zentauro basati hark lagatako ondorio gisa. Maskaradetako eta ezkontzekin lotutako izaki mitologiko eta dantzaria ere bada kultura askotan. Hainbat segizio motari ere laguntzen die dantza mota horrek, izan jai-giroko, erlijioari lotutako edota ezpata-dantzetan. Mediterraneo aldean protagonismoa lortu du borroka-dantza genero bat osatzeraino. Bada funtzio horien guztietako adibideak izango dira Ezpalak jaialdian. Kezka Dantza Taldeak ekitaldirako prestatutakoa erakutsiko du eta eurekin izango dira **Kataluniatik eta Frantziatik** etorritakoen jauzi eta dantzak, Euskal Herriko beste ordezkariarekin batera. Okzitaniako Le chevalier de Courmonterral, Bartzelonako Esbart català de dansaires, Biarritzeko Maritzuli dantza-konpainia eta Beasaingo Aurtzaka dantza-taldea izango dira, Iruñako Dugunarekin batera, euren onena ematen Untzagan, bezperan Iruñean eskainitakoaren bigarren saioan. Ezpalak jaialdia 2006an antolatu zen lehen aldiz eta ordutik **12 edizio** bizi izan ditugu: tartetan makila-, arku-, zinta-, karaktere-, soka-, sorgin- eta ezpata-dantzak modukoak eskainiz.

SOFIA YEREGUI ARANALDE

2017ko maiatzaren 11n hil zen



FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.





Kanpoko pertsonajak Eibarko paisajian

Zezen-korridia Eibarren” izeneko margolan hori esanahi haundiko lana da Ignazio Zuloagaren gazte produkziñuan. Zezen-korrida bateko erre-presentaziñua da. Orbeatarren jauregiaren fatxada plateresko ikaragarriaren aurrian egindako ikuskizuna. Unzagako jauregixa eta Torre Zaharra be deittutakua, eraikin hori XX. mendiarren hasierian bota eben.

1899xan Eibarrera bueltatu zanian, ezkontzera, zezen-korridia amaittutakuan Zuloaga pintoriak plaza horretako estudixua margotu eban. Interesgarria oso dan “al natural” egindako lan hori Felix Valdesen kolektiñuan dago gordeta, Bilbon. Bertako arkitekturak behinbetiko kuadrutan azalduko ziran enkuadre berian dagoz kokatuta, baita muntatutako egurrezko harmailak be; hori bai, hor hutsik dagoz, jende barik, eta adarkada batek tripak etaratako zaldi baten gorputza da arearen bakardaduan ikusten den gauza bakarra.

Ignazio bere lagun Maxime Dethomas pintoriaren arrebarekin, Valentinerekin, ezkondu zan eta Isaac Albeniz musikua izan zan bi lekukuetako bat eta, Elgetara ezkondu eta gero, Segoviara juan zan biharra egittera. Gaztela-Mantxako hiriburu horretan amaitsu eban kuadruta. Han gehittu zetsazen mantillekin, abanikuekin eta flekodun xalekin adornatutako emakumiak -hau da, Madrilgo erara jantzitako andrak- eta

han sartu zittuan be Segoviako estilora jantzitako gizonetzkuak. Horrek sortu eban deigarria dan anakronismua (beste mundu bateko pertsonajak ez zegokixen tokixan ipintzian), baiña aldi berian lana erakargarriagua egin eban.

Pintura horrek, gaiñera, gazte zanetik hasitta eta bere produkziño osoraiño helduko zan artistaren nortasuna osatuko eben planteamendu estetikuen sintesi ezinhoa egitten dau. Holan, hor dago bere paisaje urbanistikuetako adierazgarri bat: Espainiako beste hainbat herrixetan egin eban moduan, eraikin nabarmenenaren presentzia (batzuetan isolatuta pintatzen zittuan, beste batzuetan fondo modura). Margolanian herriko jendiak Ignazion sortzen eben interesa be agertzen da, pertsonaje zenbat eta errealistaguk irudikatuta, euren txirotasunian noblezia lagun ebela, 98ko Belaunaldikuen pentsamenduen oiñarrixerri jarraituta. Ezin da alde batera laga haren lanetan Goyak lagatako arrastua: ez bakarrik zezen-jaia interesatzen jakolako (lan horretatik aparte, beste korrida batzuk eta toreatzaillien erretratu asko egin zittuan). Horretaz aparte, jaixaren alderdi odoltsuenak be aurki geinkezartelanian (goixan aittatutako hilda daguan zaldixa da horren adibidia) eta hor dago baltza erabiltzeko agertzen daben asmo dramatikua. Modu horretan, jai giroko eszenia

lutoko atmosferarekin jantzen dau egilliak, euren lanetan “Espainia baltza” islatzen eben Dario de Regoyos edo Ricardo Baroja pintore pesimisten antzera.

Margolanari zeozer falta bajako konposiziño batasuna da: ez hainbeste atzealdeko figuren eta arkitekturen artian dagauna, lehen planuan dagaizen pertsonajien artian dagaunian baiño. Hórrek azkenok modu isolatuan sortuta dagaazelako eta gero derrigorrian sartu diralako konposiziñuan. Badira anekdotikuek diran beste puntu batzuk be: atzeko basarriaren balkoira urtendako neskeri deitzen detsen nekazarixa edo inprobisatutako palkua, Espainiako banderarekin apainduta. Kuadruta dakan aberastasun plastikua guztiz iradokitzailla da eta hor Zuloagaren gaittasun berezixa nabarmentzen da, batez be erreparatzen badetsagu zelan dakixen herri bateko paisaje panoramikuan, pertsonaje batkotxari berezko interesa emonez.

Oleoarekin egindako margolanak bi metroko zabaleria dauka eta metro eta erdiko luzera. Carmen Thyssen-Bornemisza-ren bildumakua da gaur egun eta honek Malagan dakan museuan dago 2008tik. Thyssen baronesak urte batzuk lehenago, 1995ian, erosi eban Nueva York-en egindako enkantian, 786.685 eurotan (131 milioi pezetatik gora).



Orbeatarren jauregixa (Unzagakua eta Torre Zaharra be deittutakua) agertzen da “Zezen-korridia Eibarren” margolanian.



IGNAZIO ZULOAGA

pintore haundixak bere jaioterriko eraikiñak erabilli zittuan margolana egitteko, Eibarren hasi zalako kuadruta pintatzen. Gero Segoviara juan zan bizitzera eta han amaitsu eban lana; horregaittik, agertzen diran pertsonajak, janzkeretan batez be, Eibarkuak baiño “kastellanuak” dira gehixago.

Urbateko igerilari gazteenek bikain lehiatu zuten Tolosako txapelketetan

Urbateko alebin eta benjamin mailetak igerilariak Tolosan izan ziren Igerilari Osoaren txapelketa eta Gipuzkoako Eskolartekoa jokatzeko. Lehena zapatuan jokatu zen eta hor Lucia Gabilondo, Maddi Maguregi eta Malen Beobide 6., 7. eta 8. izan ziren, hurrenez hurren. Horrez gain, Urbateko nesken taldea bigarren sailkatu zen erreleboetako 4x50 distantziako libre eta estilo modalitateetan. Domekan jokaturako Gipuzkoako Eskolarteko txapelketan, bestalde, Paula Gabilondo nabarmendu zen 100 eta 200 estilotan garaile izanda eta Asier Gomezek tximeleta erako 100 metroak irabazten amaitu zuen. Miren Galdos bigarrena izan zen 800 libretan eta beste igerilari batzuk ere onenen artean sailkatu ziren.



Urbateko igerilari gazteenek asko alaitzen dituzte uretatik kanpoko aurpegiak.

23 domina lortu zituzten Ipuruako gimnastek Gipuzkoako txapelketan

Jubenil A mailako Ipuruako taldeak Gipuzkoako txapela jantzi zuen Ipuruan jokaturako amateur mailako txapelketa horretan, bina aro eta maza pareekin egindako ariketarekin. Indibidual mailan Nerea Etxebarria hirugarrena izan zen eta Arrate Baroja laugarren. Jubenil B mailan June Argüello podiumaren gorenera iritsi zen, aroarekin nagusitu eta gero. Kadete A mailan Nahia Gonzalezek brontzezkoa eskuratu zuen eta Nahia Zenarruzabeitia 4. sailkatu zen, eta kadete B mailan Maria Cruzek 3. postuan

amaitu zuen. Senior mailakoak ez ziren atzean geratu eta, horrela, Lorea Armendariz Gipuzkoako azpitxapelduna da senior A mailan eta Irati Yartzak senior + mailako txapela jantzi zuen. Amateur mailako Ipuruako 11 gimnastek lortu zuten etzi Durangon (amateur mailan) eta ekainaren 3an (kadeteetan) jokaturako diren Euskadiko txapelketetan parte hartzeko txartela. Ekainaren 3an ospatuko da Gimnasiaren Eguna ere, Untzaga plazan: zortzi orduko jardunaldia izango da, 100 gimnasta baino gehiagorekin.



Eibar FT-ko hautagaitzek hauteskunde egoitzak zabaldu dituzte


Jarraitu dezagun! Amaia Gorostizaren taldeak Toribio Etxebarria kaleko 22an zabaldu du bere egoitza eta German Albistegiren *Hiria Primeran*-ek Zuloagarren kaleko 9an, lehen Pitxiak denda zegoen tokian. Ekainaren 1ean egingo diren hauteskundearen inguruan akziodunek izan dezaketen zalantza guztiak pertsonalki argitzea dute helburu hautagaitza biek egoitza horiek zabaltean. Aurreko astebururako zabaldutako egoitza horiek zabalik egongo dira hurrengo egunetan, honako ordutegiarekin: 19:00etatik 22:00etara *Hiria Primeran*-ekoen kasuan eta 19:00etatik 21:00etara *Jarraitu dezagun!*-enekoan.

Bestalde, atzo amaitu zuen Amaia Gorostizaren hautagaitzak hiru saiotan banaturako proiektuaren aurkezpena, Ipuruako estadioan kirol arloko nondik norakoak zehaztuz. "Eibarko herria batzeko eta kohesiozko futbolak duen gaitasuna" azaltzen saiatu zen.

Deporreko pilotari gazteenak bihar Amañako frontoian

Amañako I. Esku-Pilota Txapelketaren finalak jokatuko dira bihar Amañako dorreetako frontoian, eguerdiko 12:00etan hasiko den jaialdian. Hiru partidu izango dira: aurre-benjaminetan, Biribai eta Ortega vs Larrarte eta Lazpita; benjaminetan, Araolaza eta Alonso vs Albizu eta Sarraga; eta alebinetan, Ibarra eta Lopez vs Arrieta eta Pacheco. Aukera polita dute pilotazaleek pilota eskolakoaren progresioa ikusteko.

RODOLFO BERASALUZE ALUSTIZA (2017ko maiatzaren 18an hil zen, 60 urterekin)



"LAGUN ON BAT aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta AHAZTEA EZINEZKOA"

ZURE KUADRILAKOAK



Odei Jainagak olinpikoa izateko bidea jarraitzen du egiten

Eibarko atletak ohituta gaitu jokatzen dituen proba guztietan bere marka onenen parean jardutera eta, aurreko asteburuan Real Sociedad-ekin (Eibarko Klub Deportiboa haren filiala da) parte hartu zuen Ligako proban, jabalina 77.66 metrora jaurtita, Espainiako 23 urtetik azpiko marka egin zuen eta Euskadiko errekor absolutoa lortu; horrez gain, estatuko betiko 3. marka eta azken 14 urtetan estatuan egin den jaurtiketa luzeena izan zen berea.

Bestalde, Zumarragan jokatutako proba konbinatuaren eskolar txapelketan, Klub Deportiboko Imanol Egidazuk eta Miren Urizarrek txapela jantzi zuten. Harrobiak bikain funtzionatzen du!



Lau eibartar izango dira XVI. Zegama-Aizkorri mendi maratoian



Ander Barrenetxea, Jose Mari Berredo, Francisco Compostizo eta Ibai Lazkano gure herriko atletak Zegama-Aizkorri mendi maratoiko irteera puntuatu izango dira domekan, goizeko 09:00etan, proba ospetsu hori osatzeko asmotan. Guztira 538 korrikalari hartuko ditu 16. edizio horrek eta honako puntuotatik pasatu beharko dira: Beun-

da (10. km), Atabarreta (13,5), Aratz (16,1), Sancti-Spiritu (19,6), Aketegi (23,2), Oltze (26,6), Urbia (28,5), Itzubiaga (32,3), Moano (34,2) eta Dazur-tza (37,8 km). Bestalde, gaur 16:00etan jokatuko den Kilometro Bertikalaren 3. edizioan Jose Lizundia izango da eibartar bakarra 200 parte-hartzaileen artean.

John Sager hautagaiak lardaskeritzat jo zuen hauteskunde prozesua

Eibar FT-ko presidentea izateko hirugarren hautagaiak, John Sager estatubatuarra, "txapuza" deitu zion kanpainari eta "atzerriko akziodunei hemengoei bezain beste lagundu behar" zaiola eskatu zuen. Aurreko zapatuan eskainitako prentsaurrekoan, 60 laguneko peña bateko presidentea den Sacramentoko abokatua "atzeritarrek kapital-zabalkuntzan egindako ekarpena" gogoratu zuen eta, beste gauza batzuen artean, "kanpoko turismoari begira Eibar erakargarriago" egitea eta Eibar FT-k "aurrendenboraldian Hegoamerikan hainbat partidu jokatzeak aukerak" aztertzea eskatu zuen. Ekainaren 1ean, hauteskunde egunean, Sager ezingo da Eibarren egon familia ospakizuna duelako.



Ligako txapelduna kanporatu dute foball-zaletuko Kopa txapelketatik

Garajes Garciak ezingo du Ligan irabazitako txapela berretsi Kopa torneoan, aurreko zapatuan jokatutako final-laurdenetan Kontent-ek kanporatu zuelako penaltietan partidua bina amaitu eta gero. Penalti puntuak erabaki zuen Esmorgak ere aurrera egitea, azken hauek Ipur Sagardotegiarekin bana berdindu ondoren. Azkena Adahik aurrera egin zuen Arkuperen aurrean Mikelek sartutako gol bati esker eta, oreka gutxien izan zuen neurketan, EzDok ondo nagusitu zitzaion Durangori (5-2). Bihar erabakiko dira Kopako finalista: Bar EzDok eta Esmorga 09:00etan eta handik ordu eta erdira Kontent eta Azkena Adahi aurrez aurre izango dituzten partiduetan.

Asola Berrikoak itxaropentsu Gipuzkoako txapelketa amaitzeko bi jardunaldiren faltan

Eibarko bolatokiko ordezkari asko daude txapelketaren sailkapeneko goi postuetan, baina une honetan Jose Muñoz (Floreaga) eta Xabier Loiola (San Miguel) dituzte aurretik, 37 eta 35 txirlorekin hurrenez hurren. Bittor Astigarraga da orain Asola Berrikoen arteko lehena, 34 txirlorekin, eta gertutik jarraitzen diote Sergio Rodriguez (32), Bittor Ugarteburu (31) eta Ibai Diez (30) taldekideek. Elgetan jokatutako azken tiraldian San Migueleko Unai Loiola izan zen garaile, Astigarragaren aurretik. Txapelketa amaitzeko bi jardunaldi besterik ez dira geratzen: bihar Azkoitiko Floreagan jokatuko beharrekoa eta Eibarko Asola Berri jokatuko de azkena.




Bi partidu asteburuan Ipuruan

CD Vitoria Eibar FT-ko filialak itzulerako partidua jokatuko du bihar, 18:00etan hasita, CD Azuagaren aurka 2. B mailara igotzeko play-offaren lehen kanporaketan, Extremadura aldean husna berdindu eta gero. Eta domekan emakumezkoen Eibar FT-ko lehen taldeak Athletic B-ren aurka jokatuko du, 17:00etatik aurrera, Euskadiko Kopako finalerdietako norgehiagokan; final-laurdenetan Berriotxo laga zuten bidean.

Eibartarrek maila handia erakutsi zuten Bilboko triatloian

Ez hori bakarrik. Denboraldi honetan ikaragarri ondo dabilen Pello Osorok ezin hobeto jardun zuen beste behin eta podiumeko bigarren postua eskuratu zuen, Gustavo Rodriguez Espainiako txapel-dunaren atzetik. Peloren eskolako Txomin bere anaia

ere geratu barik dabil eta onena izan zen 23 urtetik azpikoaren artean (23. sailkapen orokorrean). Delteco Eibar Triatloi Taldeko Gonzalo Saezek 50. postuan amaitu zuen triatloi olinpikoan eta Ane Ziaran eibartarra zazpigarren amaitu zuen.



Pello Osoro (ezkerrean) bigarren izan zen Bilbon.

IX. Galdaramiño mendi igoera ate joka dator

Bi asteburu barru jokatu den mendi igoera horretan parte hartu nahi dutenek izena eman deza-

ketete dagoeneko kirol-probak.com helbidean. Bederatzigarren edizio hori, ohikoa denez, Atzegikoen laguntzarekin jokatu da, eta Urkiko jaietako barruko egitarauan. Probak ekainaren 11n, domekan, goizeko 09:30ean izango du hitzordua eta 18 kilometroko ibilbidea izango du, 900 metroko desnibelarekin: Urkitik abiatuta, Galdaramiño, Azkonabitza, Topinburu eta Ilordo izango dute bidean, berriro Urkira bueltatu aurretik.



Eibarko Itzuliaren 20. edizioa egingo dute ekainaren 3an mendiz-mendi

Eibarko Klub Deportiboko Mendi Taldeak antolatuta, bi urtetik behin egiten den Eibarko Itzuliaren 20. edizioa egingo da datorren asteko zapatuan. 31 kilometro eta erdiko ibilbide zirkularra izango da egun horretakoa, gure herriko gailur garrantzitsuetatik pasatuko dena. Deportiboaren egoitza aurretik 07:00etan irtengo dute eta bidean bi anoa postu kokatuko dituzte: "Asurtzan hamarretakoa egiteko aukera izango da eta Arraten fruta hartzeko". Ibilbide motzagoa egiteko aukera ere izango da, Azitainen amaituta, "eta ibilbidearen erdia baino zertxobait gehiago eginda". Ibilbidea puntu horiz markatuta dago eta badago aukera webgunean track-a deskargatzeko. Ibilaldia doakoa da eta ez da beharrezkoa izena ematea; hori bai, nahi duenak 7 eurotan salgai dauden kamisetak erosi ditzake Klub Deportiboan. Informazio gehiagorako: www.deportibar.com/mendia/



Sanjuanetako pilota jaialdia aurten ekainaren 25ean izango da



Aurreko zapatuan Iruñean emandako prentsaurrekoan Juan Martinez de Irujok aurreratu zuenez, bere ibilbide profesionalarekin amaitzeko jaialdia jokatu da Iruñean ekainaren 24an, San Juan egunean. Aspe enpresak Nafarroako hiriburuan programatuko duen jaialdi horrek Eibarko jaien inguruan Asteleanean antolatzen duena egun bat atzeratzea ekarriko du eta aurten, San Juan egunean izan beharrean, San Juan Txiki egunean izango da.

CAPI

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547


GORPUTZ TRATAMENDUAK



LEHEN



ORAIN



lehen

orain

PROGRAMA BERRIAK
Tratamendu drainatzaile
eta birmodelatzailearen
4 saiorako bonoak

Masajeak

Powered by



Ipini
zaitez
sasoi
onean ...

Hileroko bonoak 80€

... astero
bakarrik
20 minutu
eginez

Pertsonalizatua


“Teatro Mohicano” lanak agurtuko du Eskolarteko Erakusketa

Gaur iluntzean, 20:30ean agurtuko da 33. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketa, Bizkaiko “Pabellón nº6” antzerki laborategiak 20:30ean Coliseoan eskainiko duen “Teatro Mohicano” lanarekin. Ramon Bareak zuzenduta, parte hartuko duten antzezleak Leire Orbe, Aitor Borobia eta Mikel Ibañez dira. Felipe Lozaren testuari jarraitzen dion antzezlan hau 1991an estreinatu zen, Teatro Tarimaren eskutik eta Ramon Bareak zuzenduta eta, 25 urte geroago, berreskuratu egin dute, zuzendari berekin, baina aktoreak aldatuta. Gaur goizean ikasleentzat euske-



razko bertsioa egin dute eta iluntzeko emanaldia, berriz, gazte-eraz izango da. Sarrerak 5 euro balio du.

Gervasio Sanchezen “Sarajevo, gerra eta bakea” zabalik



Foru Aldundiko Lankidetzako Zuzendaritzak, Euskal Fondoak eta Eibarko Udalak elkarrekin Eibarko bonbardaketaren 80. urteurrenaren inguruan antolatuta, martitzenaz geroztik Gervasio Sanchez argazkilariaren “Sarajevo, gerra eta bakea” erakusketa dago ikusgai udal-tertxo patioan. Gervasio Sanchez mundu osoan zehar ibili da lanean erreportari grafiko modura eta gatazka armatu ugari bizi izan ditu. Hedabide ezberdinentzat lan egin du, nahiz eta gehiengotan kazetari independente modura aritu,

eta sari garrantzitsuak jaso ditu, besteak beste, kazetaritzako Ortega y Gasset saria. Bosniako gerra hasi zela 25. urteurrena betetzen dela oroitzeko, egilea berak aurkeztu zuen argazki bilduma hau Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen. Erakusketak Sarajevoko setioaren gerra garaiko zuri-beltzeko argazkiak erakusten ditu, batetik, eta ingurune berak, hamabost urte geroago, bake garaian nola dauden (koloretan), bestetik. 50 argazki osatutako erakusketa da eta ekainaren 18ra arte egongo da zabalik.

“Gu eta gutarrak!” kartelak irabazi du San Juanetako lehiaketa

Aurtengo San Juan jaiak iragartzeko kartel irabazlea Valladolideko Clara Martín Ramosen “Gu eta gutarrak!” izenburuko lana izan da. Umeen mailan, 11 eta 14 urte bitartean irabazlea Naira Gutiérrez Sotoren “Sanjuanetako kuadrila” kartela izan da irabazlea eta 10 urtera arte, berriz, Malen Etxeberriaren “Gau koloretsua!”.



Euskeraz primeran amaraunak armiarma gehiago behar ditu

“Izan zeu ere euskeraren armiarma eta ehundu sarea!” kanpaina azken txanpan sartu da. Maiatza osoa emango du ...eta kitto!-k Euskeraz Primeran intsignien bitartez sarea ehuntzen, eta horretarako eibartar guztien kolaborazioa beharko du, guztien artean amarauna handitzen joateko. Intsigniak eskuragarri daude ...eta kitto! bertan eta AEK eta Udal Euskaltegian. Eskatzera doanari bizpahiru emango zaizkio, bat norberarentzat eta beste biak euskera

erabiltzeko konpromisoa hartu nahi dutenen artean banatzeko. Datorren eguaztenean talde argazkia aterako da, 19:00etan Urkizun, ...eta kitto! Euskara Elkartearen batu eta jarraian. Arduradunen berbetan, “asmoa orain dela hiru aste ateratakoaren aldean sarea zenbat handitu den ikustea da. Pasa zaitezte zuen intsigniak jasotzera, lagundu sarea ehuntzen eta agertu datorren eguaztenean, ea guztion artean amaraun handi bat osatzen dugun!”.



Kaleetan Kantuz eta Barakaldoko Gitarraren Lagunak kontzertuan

Bihar 19:00etan kontzertua emango dute Barakaldoko Gitarraren Lagunak taldeak, Kaleetan Kantuz Euskal Dantza taldeak eta Kaleetan Kantuz abesbatzak, San Agustin elizan. Emanaldiaren amaieran, agurtzeko hiru taldeek batera jardungo dute. Sarrera librea izango da.



Herriko ikasleen bertsoak Coliseoko taula gainean

Bertsozale Elkartearen gidaritzapean, eta Udalak eta parte hartu duten ikastetxeek finantzaturik, Ahozkotasuna eta Bertsozaintza egitasmoa lantzen ibili diren ikasleak bertsoan aritu dira aste honetan Coliseoan. Aurten ere hiru emanaldi eskaini dituzte, egitasmoan parte hartu duten taldeak asko ugaritu direlako. Astelehen eta martitzenean Amaña, Iturburu eta La Salleko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek jardun zuten eta atzo, berriz, Arrateko Andra Mari, San Andres, Urkizu eta Aldatzekoak igo ziren taula gainera.



Ederto ibili ziren barixaku arratsaldean Urkizun jolasean

Gurasoak Berbetan egitasmoko guraso eta seme-alabentzat ...eta kitto!-k hilero antolatzen duen Barixakuan Jolasian ekimena irekia izan zen aurreko barixakuan eta, gainera, jolasak kalera, Urkizuko parkera aterra zituzten. Inguruan zeuden umeez ez zuten ondo pasatzeko aukerarik galdu nahi izan eta ederto pasatu zuten, eurentzat prestatu zituzten jokotan parte hartzen eta aisialdia euskeraz gozatzen.



Argazki-rallya jokatu da domekan

Klub Deportiboko Argazki taldeak antolatutako "Argazkilaritza Maiatzean" agurtzeko, domekan argazki rallya egingo da. Parte hartu nahi duenak egunean bertan eman dezake izena, 08:30etik 09:30era bitartean Klub Deportiboan. Izen-emateak 10 euro balio du, hamaiketako barne eta umeez ez dute ezer ordaindu behar. Kategoria bitan, zuri-beltzean eta digitalean parte hartzeko aukera dago.



"El Bosco"-ri buruzko kafe-tertulia

Martitzenean, 17:00etatik 19:00etara, Pagatxa emakume elkarteak antolatuta, kafe tertulia egingo da Portaleko ikastaro gelan. Saiorako aukeratu duten gaia "El Bosco. Ustelkeriaren ironia" da eta Satur Peña Artearen Historian doktoreak gidatuko du. Interesa duten guztientzat zabalik egingo da ekitaldia.

Biraka Dantza taldearen emanaldiak

Datorren asteko martitzen, eguazten eta egunean Biraka Dantza taldekoek ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute Coliseoan, Josu Mujikaren zuzendaritzapean. Saioak 17:30ean hasiko dira hiru egunetan eta sarrerak 3 euro balio du.

Ipuin-kontalari saioa euskeraz

Bihar 18:00etan Gorka Olazabal "Apaxi"-k ipuin kontakizuna (euskeraz) egingo du El Corte Ingelsean, doan, toki guztiak bete arte. Izena emateko Euskal Literatura sailera joan behar da, 3. pisura.



Usartza Txistulari Taldeak freskotasan eta modernitatez busti nahi du Txistulari Alardea. 2008az geroztik albo batera utzi duten ekintza da, baina bederatzirter ostean inoiz baino gogotsuago ekingo diote erronka berri honi. San Juan Txiki eguneko jai-giroari musika, dantza eta festa eskaintzeko asmoz arituko dira Elena Perezen zuzendaritzapean Untzagan.

Alarde fresko eta modernoa 9 urteren ostean

Enrique Montero Usartza Txistulari Taldeko kideak umea zenean egiten zen Txistulari Alardea gogoratzen du. *“Jose Luis Perez Sarasketa izan zen Eibarko Txistulari Alardearen lehen zuzendaria, baina ez dut oroitzen zehazki zein urtetan egin zen lehendabizi”*. Aurten Alardearen XXII. edizioa egingo da, baina bederatzirte itxaron behar izan dira azken alditik.

Alardea antolatzeak *“lana eta kostua”* eskatzen du, Monterok dioenez, eta hori izan da 2008az geroztik Eibarren egin ez izanaren arrazoia. Usartzak, hala ere, tradizioa berreskuratu nahi izan du eta, Udalarekin berba egin ostean, *“ekainaren 25ean, San Juan Txiki eguna, egitea erabaki genuen 13:00etan Untzagan”*.

Aurreko Alardeak beste data eta tokietan egin ohi ziren, *“urrian, azaroan eta beste hilabete batzuetan egin izan dira, eta Astelena frontoia, Coliseoa eta bestelako tokiek jaso dute”*. Aurtengoan, herriko jaietan egiten denez, kaleari emango diote protagonismoa eta herritarrengandik inoiz baino hurbilago egongo dira. Goizean, lehenik, *“frogatxo”* egingo dute eta, gero, kalejira egingo dute Alardea baino lehen herria girotzeko.

Errepertorio gaurkotu eta herrikoia

Alardearen tradizioa berreskuratu nahi izan du Usartza Txistulari Taldeak, baina errepertorio gaurkotu eta herrikoia prestatu du ikuskizun erakargarria eskaintzeko gogoz. Emanaldiak ordubeteko iraupena izango du, *“gutxi gorabehera”*, eta hamahiru abesti eskainiko dituzte: Jose Ignazio Ansorenaren ‘Antzinako dantzak’, Kepa Junkeraren ‘Muskerraren baltsa’, Niko Etxarten ‘Eperra’, Xabier Leteren ‘Xalbadorren heriotza’, Oskorriren popurria, Pablo



Enrique Monterok aurtengo Alarde bereziak izango dituen ezaugarriak argitu dizkigu.



Ekainak 25 13:00 Untzaga plaza

Sorozabalen ‘Gernika’ (*“aurten bonbardaketaren 80. urteurrena bete delako, omenaldi moduan”*) eta Gorka Sarriegiren ‘Arratsalde honetan’, besteak beste.

Modernitateari keinu eginez, bestetik, Madonna abeslari estatubatuarrekin elkarlanean aritu den Kalakan taldearen ‘Sagarra jo’ joko dute Untzagan. Kantu tradizionalen oinarritu eta euskaraz abesten duen taldea da Kalakan, eta Madonna berak ere ‘Sagarra jo’ abestiaren kopia bat euskaraz abestu izan du munduan zehar zazpi hilabetez eskaini zituen 80 kontzertuetan.

Koroa, dantza eta bestelako doinuak

Abesti ezagunez gain, Durangotik datozen doinu berriak ere eskainiko dira. *‘Durango Hiria’ lehiaketak txisturako konposizio onena saritzen du, eta bertan parte hartu zuen Carlos Sanchez Ekizaren ‘Hegoaldetarrok’ pieza utzi dio Silboberri Txistulari Elkarteak Usartzari. Durangarrak, gainera, Eibarko Alardean arituko dira, Usartzakoak ez direlako bakarrik arituko Untzagako eszenatokian. “Inguruko herrietako txistulari taldeak etorriko dira (Deba, Ondarru, Mutriku, Arrasate, Antzuola...), aurretik ere gurekin aritu direnak”*, dio Monterok.

Txistuari soinuari laguntzeko, bestetik, *“Molto Vivace metalboskotea, perkusioa joko duten hiru lagun, gitarra espainola, baxu elektrikoa, soinuaren doinuak eta Lizarrako dultzaineroak edukiko ditugu; eta Sostoa Abesbatzakoak eta Kezka Dantza Taldekoak ere gurekin arituko dira”*.

Umeak txistura erakarri

Eguneroko jardun arruntetik irteteko aukera eman die Alardeak Usartzakoei. Euren ekintza freskatu dute eta herriari ikuskizun ederra eskaintzea da euren asmoa. Gainera, *“umeak txistura erakarri nahi ditugu, ezagutu gaitzate-la eta ohiko erregistroetatik haratago ere gabiltzala ikus dezatela”*. Txistua modernizatze bidean jarri da eta ekainaren 25ean emango du lehen pausua.



Nafarroako jotak ELGOIBARREN

Jota munduan oso ezagunak diren eta hainbat sari jaso dituzten Maria Herrerek eta Diego Urmenetak "Jotaren izarrak" izenburuko saioa eskainiko dute gaur gauean, 22:30ean, Elgoibarko Txariduna jatetxean.



Ikasten-ekoen antzezlanaren ERMUAN


Eibarko Ikasten elkarteko La Novena antzerki taldekoek "Rarezas sobre otras rarezas no tan raras", Dario Fo-ren testuari jarraitzen dion antzezlanaren eskainiko dute gaur 20:30ean Ermuko Antzokian, Ernesto Barrutiaren zuzendaritzapean. Sarrerek 3 euro balio du.



Asentzioko Jaia ELGETAN

Domekan ospatuko dute Asentzioko jaia Elgetan. Goizeko 11:00etatik aurrera hasiko dira ekitaldiak eta, besteak beste hamaiketakoak, meza eta trikitilarien saioa antolatuko dituzte.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Rodolfo Berasaluze Alustiza. 60 urte. 2017-V-18.
- Etel Alonso Arrizabalaga. 94 urte. 2017-V-19.
- Javier Aliende Torrecilla. 85 urte. 2017-V-20.
- Modesto Garcia Cid. 84 urte. 2017-V-21.
- Milagros Olmedilla Alonso. 80 urte. 2017-V-22.

jaiotakoak

- Ani Gallastegi Etxaniz. 2017-V-14.
- Angel Jose Rivas Bellorin. 2017-V-15.
- Eider Peixoto Movilla. 2017-V-16.
- Julen Isasi Conchas. 2017-V-17.
- Anne Lasuen Hernandez. 2017-V-19.
- Lukas Unanue Thobie. 2017-V-19.

farmaziak

- Barixakua 26
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 27
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Domeka 28
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 29
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 30
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 31
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguena 1
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Barixakua 2
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2017AN-
 Mandiola (S. Agustin, 3)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

SUDOKUA

AURREKOAREN EMATZA

1	4	3	5	6	8	9	2	7
8	2	6	7	1	9	3	4	5
7	9	5	4	2	3	6	1	8
3	8	9	2	7	6	4	5	1
2	5	7	3	4	1	8	9	6
6	1	4	8	9	5	7	3	2
4	6	8	1	3	2	5	7	9
9	7	1	6	5	4	2	8	3
5	3	2	9	8	7	1	6	4

			5					
		9					4	
	1	2			7	3	5	
3		1			4		7	
	5						3	
	4		2			5		8
	3	7	9			1	8	
	6					2		
					3			

Barixakua 26

52. EUSKAL JAIA

17:00/19:00. Kalian Jolasian: 5-8 urte bitarteko umei, eta euren guraso eta familiei zuzendutako euskarazko jolasak. Eibarko Bizikleta plazan.

19:00. Bizikleta plazatik abiatuta, kale animazioa, Burrunba elektro-txarangarekin.

ANTZERKIA

20:30. "Teatro Mohicano" (Teatro Tarima). Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketa. Coliseoan.

Zapatua 27

52. EUSKAL JAIA

10:00/14:00. Artisanu eta baserritarren azoka. Herri kirolak, bertsolariak, talopostua, kale animazioa Eibarko trikitilari gazteekin. Toribio Etxebarria kalean. **19:00.** Guridi tabernatik abiatuta, trikipoteoa Eibarko trikitilari gazteekin. **21:30.** Kantu afaria. Kantuak taldeka Eibarko musikari desberdinek musikatuta eta ostean erromeria Jainaga eta Narbaizarekin. Untzagako karpan.

BICIBIZI

11:00/13:00 eta 17:00/20:00. Bizikletaren inguruko jaia: erakustaldiak eta spinning solidarioa. Txaltxa-Zelaian.

AMAÑA IKASTETXEKO JAIA

11:00/13:30. Tailerrak (henna, makillajea, psikogela...) eta jolasak. **14:00/16:00.** Bazkaria (etxetik eramandakoa). **16:30/17:45.** Musika eta animazioa Mikel Eguiluzen "Dantza Festa"-rekin. Amaña ikastetxean.

IPIIN KONTAKETA

18:00. Gorka Olazabalen "Apaxi". Doan, toki guztiak bete arte. Izena emateko Euskal Literatura sailera joan behar da, 3. pisura. El Corte Inglesean.

KONTZERTUA

19:00. Barakaldoko Gitarraren Lagunak, Kaleetan Kantuz Euskal Dantza taldea. Sarrera doan. San Agustin elizan.

Domeka 28

ARGAZKI RALLYA

08:30/09:30. Klub Deportiboko Argazki taldeak antolatutako rallyan (zuri-beltzean eta digitalean) izena ematea (10 euro, umeak doan. Hamaiketako barne) eta irteera. Klub Deportiboan.

52. EUSKAL JAIA

12:00. Euskal Jaiko kalejira, Urkizutik Untzagaraino.

12:30. Ezpalak dantza jaialdia: "Zaldikoak". Untzagan.

14:30. Herri bazkaria. Untzagako karpan.

17:00. Erromeria, Errebal taldearekin. Untzagan.

19:00. Larrain-dantza popularra. Untzagan.

20:00. Larrain-dantza popularra. Deportibo parean (euria egingo balu, Astelena frontoian).

Martitzena 30

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra. **17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

KAFE TERTULIA

17:00. "El Bosco. Ustelkeriaren ironia", Satur Peñaren eskutik. Pagatxak antolatuta. Portalean (ikastaro gelan).

BIRAKA DANTZA

17:30. Dantza taldekoen ikasturte amaierako emanaldia. Zuzendaritza: Josu Mujika. 3 euro. Coliseoan.

Eguaztena 31

IKASTEN

09:12. Ibilaldia: Hondarribia-Higer burua Amuitz. Trenaren irteera ordua Ardantzan (09:14 Estazioan). 11:00: Hondarribira autobusa.

BIRAKA DANTZA

17:30. Dantza taldekoen ikasturte amaierako emanaldia. Zuzendaritza: Josu Mujika. 3 euro. Coliseoan..

EUSKERAZ PRIMERANI

19:00. Intsignien kanpainako talde argazkia. ...eta kitto!-n.

DANBORRADA ENTSEGUA

19:00. Danborradarako umeen entsegua. **20:00.** Helduen entsegua. B. Sarasketa kaleko 7an.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 1

BIRAKA DANTZA

17:30. Dantza taldekoen ikasturte amaierako emanaldia. Zuzendaritza: Josu Mujika. 3 euro. Coliseoan.

KALEETAN KANTUZ

17:45. Kaleetan Kantuz dantzak. Untzagako jubilatutako etxean. **19:30.** Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

ODOL-EMATEA

18:30. Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

KALERATZEAK STOP

19:00. Kaleratzeak Stop plataformako bilera irekia. Portalean.

DANBORRADA ENTSEGUA

19:00. Amañako danborradarako umeena. **20:00.** Helduen entsegua. Amañako ikastetxean.

Erakusketak

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

Maiatzaren 28ra arte

- Einer Rodriguezen "Panorámicas: Eibar-Euskadi". *Topalekuan.*
- "Memòries d'un fotògraf - Agusti Centelles (1909-1985)". *Portalean.*
- Asier Garagarzaren "Unek". *Portalean.*
- CVCE PHOTO. Mendi argazkiko nazioarteko lehiaketa. *Portalean.*

Maiatzaren 31ra arte

- Maria Tudela. *El Corte Inglesan.*
- Gipuzkoa Nazioarteko Saria. *Untzagako jubilatutako etxean.*
- Argizaiola Saria. *Klub Deportiboan.*
- Eibarko Klub Deportiboko argazki taldekoen lanak. *Ambigü eta Portalea tabernetan.*

Ekainaren 18ra arte

- Gervasio Sanchezen "Sarajevo, gerra eta bakea" argazkiak. *Udaletxeko patioan.*

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, SABINA, martitzenian bost urte bete zenduaz-en-eta. Patxo asko famelixa guztiaren eta, batez be, Antonen partez.



Zorionak, NAROA!!! Beti alai eta beti irribarria etartzeko prest. Egun zoragarria pasau eta musu pilla bat danon partez.



Zorionak, MARKEL, haraiñegun hiru urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat ama, aitta eta Hegoiren partez.




Zorionak, PAUL Teresa Arce, astelehenian lau urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat, mutil haundi, Sara, amatxo eta aitaokoren partez.



Zorionak, MIKEL Mondragon Urizar, bixar hiru urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Ongi etorri, MIKEL, hillaren 17tik gurekin zagoz-eta. Zorionak aitaok Iñigo eta amatxo Alaitzi. Musu bana famelixaren partez.



Zorionak, MADDI, astelehenian sei urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IZARO, atzo 5 urte egin zenduaz-en-eta. Famelixa guztiaren eta, bereziki, Enekoren partez.



Zorionak, LUKEN, martitzenian hiru urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, ADEI, gaur zazpi urte betetzen dozuzelako. Musu asko etxekuen eta, batez be, Ekhiren partez.



Zorionak, NAIA, potxoli, eta eskerrik asko 10 urte hauetan emon deskuzun poztasunagaittik.



Zorionak, AITOR, eguaztenian lau urte egin zenduaz-en-eta. Musu potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, ZORION eta ELIANA, eta ondo pasa zuen ezkon egunian, etxekuen partez.



Zorionak, LUKAS Unanue Thobie, gure famelixa haunditziagaittik. Ongi etorri, zure arreba AINHOA eta anaixa MICHEL-en partez.



Zorionak, CLAUDIA, astelehenian bost urte egin zenduaz-en-eta. Aitaok, amatxo, aitaok, amama eta, batez be, zure anaixa JONen partez! Musuuuak!!



Zorionak birritan, bikote, haraiñegun ezkontza urteurrena betetziak gain, bixok urtiak be bete zenduezelako. Musu bana, ALAZNE eta EKAITZ, famelixaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

27an: 17:00, 19:45, 22:30

28an: 17:00, 20:00

29an: 20:30

"Maravillosa familia..."

Zuzendaria: Yoji Yamada



(2 ARETOAN)

27an: 17:00, 19:45, 22:30

28an: 17:00, 20:00

29an: 20:30

"Déjame salir"

Zuzendaria: Jordan Peele



(ANTZOKIAN)


27an: 17:00, 19:45, 22:30

28an: 17:00, 20:00

29an: 20:30

"Piratas del Caribe"

Zuzendaria: Joachim Roenning



Zorionak, ELENE!, astelehenian lau urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 662-012834.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 646-778839.
- 2 logela (edo gehiagoko) pisua hartuko nuke alokairuan. Erdialde-Urkizu inguruan. Tel. 603-618793.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-649850.
- 4 logelako etxea alokagai Aoizen (Nafarroan). Iruñea, Orreaga eta Iratitzi gertu. Lo rategiarekin. Astebururako, aste osorako edo hilabeterako. Tel. 670-351672.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Hiru logelekoa. Tel. 688-802329.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Lokala salgai Birjiñape 1-ean. Bulegoa egiteko aproposa. 33 m². Tel. 688-678934.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-378463.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 653-319561.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 642-983430.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-506763.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-218828.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gazez ere bai. Orduka. Tel. 632-669488.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 664-009315.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 633-072144.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 635-091262.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 678-814941.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-469029.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-636069.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta banatzaile jarduteko. Tel. 632-876442.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-526711.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 621-081273. Ethel.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-758270. Griselda.
- Neska eskaintzen da asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-478589.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 677-342171.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Esperientzia handia. Tel. 664-357381.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 649-442014. Camelia.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-343232.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-490595.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-506382.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 619-339881.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-193840.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 666-197835.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 666-704348.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-026510.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 602-057185.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 648-039187.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 688-899813.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-367802.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-436462.
- Gizona eskaintzen da eraikuntzan jarduteko, zaintzaile moduan, sukaldaritzan... Tel. 631-649850.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 612-266877. Eva.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gazez eta asteburuetan ere. Tel. 671-763558.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 645-891307.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 682-277198.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 697-754174.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 633-401678.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-553296.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (etxean zein ospitalean). Orduka. Tel. 652-587259.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta txakurrak pasiatzeko. Tel. 652-587259.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-025691.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-691242.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 634-978346.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 689-003537.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-473637.

4.2. Langile bila

- Drogeteniturrir aldizkariak koordinatzailea behar du. Balaratuko da euskaraduna izatea, ondo idazten jakitea, Kazetaritza ikasketak izatea, Quark eta Photoshop erabiltzen jakitea, Ermua edo Mallabikoa izatea, eta lidergo eta koordinazio gaitasuna izatea. Bidali curriculumak ekinaren 7a baino lehen: drogeten@gmail.com
- Kamarera/o behar da lanaldi osorako. Esperientziarekin. Tel. 635-894791.
- Neska edo emakume euskalduna behar da umea orduka zaintzeko. Tel. 629-332645.
- Kamarera/o behar da asteburuetan egunez lan egiteko. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a: curriculumcafe2017@gmail.com
- Neska euskalduna behar da udan umeak zaintzeko. Tel. 660-522670. Eli.
- Bergarako enpresa batek ardatz anitzeko tomoan trebea den langilea behar du. Tel. 626-672020 eta betiko@industriasbetiko.com
- Kamarera/o behar da asteburuetan eta udan lan egiteko. Curriculumak bidali: eibar-kafe@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Ingeles Filologiako graduatua eskaintzen da udan umei klase partikularrak emateko. Tel. 617-124275.
- Euskarazko klaseak ematen ditut. Maila guztiak eta ume zein helduei. Azterketetarako prestaketa: EGA, IVAP, HABEren perfilak... Tel. 620-608065.
- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailetako Matematika, Fisika etabarretako klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak eta 2/3 ikasleko taldekoak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus



MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Ate Irekiak

Maiatzak 27 11:00

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91 ■ 664 277 592



“EUSKERAZ PRIMERAN” SAREAK BEHAR ZAITU!

Amarauna haunditu behar dugu eta horretarako...

ARMIA ARMAK BEHAR DITUGU!

Jaso ezazu zure INTSIGNIA
(...eta kitto!n edo euskaltegietan)
eta etorri ...etakitto!ra

**MAIATZAREN 31n, 19:00etan
TALDE ARGAZKIA ateratzera**

Ea zenbat haunditu den
EUSKERAZ PRIMERAN SAREA!



BANCO MEDIOLANUM, neurria egindako banka pertsonalizatua

Banco Mediolanum, bezeroei helburuak lortzen 30 urte baino gehiago daramatzen espainiar finantza-erakundea da. Bankuak sektoreko kaudimen eta sendotasun handieneko erakundeen artean finkatzea lortu du, Family Bankers deritzenak oinarri dituen zerbitzu pertsonalizatu bati esker. Banakako ahokulari hauek bezeroen esanetara daude urteko 365 egunetan, beharrak, helburuak edo ametsak betetzen lagunduko dien finantza-plangintza egiteko asmoz.

Banco Mediolanum-en ereduak ohiko banku-bulegoak baztertu ditu, aholkularitza pertsonal eta indibidualizatua eskaintzen duten aholkularien sare baten alde apustu eginez. Merkatuei buruzko ezagutza eta finantza arloko prestakuntza sendoa duten Family Bankers delako profesional hauek bertatik bertara ezagutzen dituzte bezero bakoitzaren ezaugarriak, beharrak eta finantza arloko helburuak.

Ivonne Pousa Banco Mediolanum-en Euskadiko arduradunak adierazi duenez, *"Family Banker baten eginkizuna, bezeroei aholkularitza eta laguntza ematea da, gogoan darabiltzaten helburuak bete ahal ditzaten. Aurrezkiak planifikatzen eta kudeatzen laguntzen die, aurretiaz ezarriak dituzten helburuak betetzeko. Gure Family Bankerrak Eibarko Edorta Silva bezalako profesionalak dira, une oro bezeroen alde, aurrezkiari buruzko erabakirik onenak hartzen laguntzeko. Guretzat, finantza-plangintza ez da soilik aurrezkiak kudeatzea; horrez gain, erretiroa, seme-alaben ikasketak, kreditua eta abar planifikatzen laguntzen dugu"*.



Ivonne Pousa Banco Mediolanum-en Euskadiko arduraduna eta Edorta Silva, Family Bankerra.

Banco Mediolanum-ek beharrizan bakoitzaren neurriko Aurrezki-Plan Partikularra nahiz banku-zerbitzuen, aurrezkiaren eta inbertsioen inguruko aholkularitza eskain dezaketen kualifikazio handiko 840 Famili Banker baino gehiagok osatutako sarea dauka Estatu osoan. Eta European, erakundea barne hartzen duen Mediolanum Taldeak milioi bat bezero baino gehiagoren 78.000 milioi euro inguru kudeatzen ditu.

Family Bankerrarekiko harreman pertsonalaz gain, Banco Mediolanum-ek eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan erabilgarri dagoen kanal anitzeko zerbitzua eskaintzen du, smartp-

hone edo tablet baten bitartez eragiketarik ohikoenak egiteko aukera ematen duen Internet eta APPen bidezko banka elektronikoko zerbitzuei esker.

Euskadiko jarduera

Banco Mediolanum-ek bi hamarkada baino gehiago daramatza Euskadin, 1994tik zehazkiago esanda, eta gaur egun, 70 Family Banker inguruk artatutako 9.000 bezero baino gehiago ditu. Aurreko ekitaldiaren buruan, erakundeak euskal aurrezleen 380 milioi euro baino gehiago kudeatzen zituen, 2015aren aldean % 10,4ko igoera lortu ondoren, Estatu osoko handienetakoa.



EDORTA SILVA ALEGRÍA
Banco Mediolanum-en Agente Ordezkaría
/ Family Banker

647 761 980 / 944 790 022
edorta.silva@bancomediolanum.es
www.bancomediolanum.es